



taxiA

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Elementu garrantzitsuenak gure proiektuak funtziona dezan ?

Gure proiektuak behar bezala funtzionatzeko, hainbat elementu garrantzitsu ezinbestekoak dira. Lehenik eta behin, **teknologia aurreratua behar dugu**: Ibilgailu autonomo fidagarriak, %100 elektrikoak, eta horiek kudeatzeko gai den sistema adimentsua. Ibilgailuen segurtasuna eta funtzionamendu egokia bermatzeko, etengabeko monitorizazioa eta mantentze teknikoa ezinbestekoak izango dira.

Bigarrenik, **aplikazio digital erabilerraza izatea funtsezkoa da**. Aplikazio horren bidez, erabiltzaileek zerbitzua erreserbatu, ordainketak egin eta ibilbidea jarraitu ahal izango dute. Horrez gain, aplikazioak bezeroarentzako laguntza eta informazioa eskaintzeko balio behar du, erabiltzaileek konfiantza izan dezaten.

Beste elementu garrantzitsu bat **giza taldea** da. Bertan 15 kopiloto izango ditugu eta gure Pop-up storen 6 langile ere, guztira 21 langile. Eta gu, bi bazkide. Nahiz eta zerbitzua autonomoa izan, beharrezkoa da langile kualifikatuak izatea teknologia, bezeroen arreta, administrazioa eta segurtasunaren arloan. Langileek zerbitzuaren kalitatea eta erabiltzaileen esperientzia ona bermatuko dute.

Guk, bi bazkideek, giza taldea koordinatzeaz arduratuko gara. Erakunde publikoekin bilerak egingo ditugu eta edozein arazo dagoenean, gure ardurapean egoerak hobetzen saiatuko gara

Finantza baliabideak:

Hasiera batean gu, bi bazkida, 20000 euroko inbertsioa egingo dugu. Gainera Teslaren fiantzaketa-aren laguntzarekin hasiko gara eta gobernuaren laguntza espero dugu.

Horrez gain, segurtasuna eta datuen babesa oinarritzekoak dira, zerbitzua berritzailea delako eta erabiltzaileen konfiantza lortu behar delako. Horretarako, segurtasun-sistemak eta datuen monitorizazio egokia martxan egon beharko dira.

Azkenik, komunikazio eta marketin estrategia egokia beharrezkoa da, Donostiako herritarrei zerbitzua ezagutarazteko. Sare sozialen bidezko publizitatea, pop-up dendak eta erakundeekin lankidetzak funtsezkoak izango dira zerbitzua ulertua, onartua eta erabilia izan dadin.

Elementu horien guztien bidez, gure proiektuak modu eraginkorrean, seguruan eta jasangarrian funtzionatzeko oinarri sendoak izango ditu.